

# Gizartea eta artistak

Jarraian aurkeztuko dugu joan den 1997ko martxoaren 23an Artelekun espainiar artisten elkarteetako ordezkariekin egindako «Gizartea eta artistak» mahai-ingurua. Parte-hartzaileak **Xanti Eraso (XE)**, **Florenci Guntín (FG)**, **Begoña Hernández (BH)**, **Poldi Langer (PL)** eta **Marcelo Expósito (ME)** izan ziren.

Testu hau, aurrez, Zehar 36 zenbakian argitaratu zen, 1998an.

**Xanti Eraso:**

Laurogeiko hamarkadan, merkatuaren eta erakunde publikoen nonahikotasunak artistengan eragindako lilurak normalizazioa lortzeko itxaropen faltsua sortu zuen. Bazirudien artisten eta gizarte zibilaren arteko harremana bi aldeok elkarganatuta bideratuko zela. Zertan datza, egiaz, harreman hori?

**Florenci Guntín:**

Laurogeiko hamarkadan ekonomia berotzean, soberakinak eta diru beltza erruz azaleratu ziren. Artearen merkatuak soberakin haiek erakarri zituen, salerosketak eta prezioak izugarri igo ziren eta egoera artifical bat sortu zen; aldi berean, gainera, ordura arte existitzen ez ziren kultur politikek loraldi bikaina ezagutu zuten. Bestalde, nazioarteko modak edo joerak, zabalkunde kanpaina ahaltsuen bermeaz, tokian tokiko bertsioetan islatu ziren han eta hemen. Hiru faktore horiek –merkatuak, politikak eta modak– lilura faltsu bat sortu zuten. Lilura hautsi egin zen, ordea, batetik krisi ekonomikoaren lehen zantzuak agertu zirenean eta, bestetik, artea sustatzeko politikak auzitan jartzen hasi zirenean. Hortik aurrera, merkatuak bere benetako aurpegia –hobeki esan, artea bideragarri egiteko ezintasuna– erakutsi zuen ostera.

**Begoña Hernández:**

Urte haietan, mundura irteteko, moderno bilakatzeko eta kultura gastatzeko beharrezko zegoen, horren adierarik topikoenean. Sektorearen normalizazioari dagokionez, nire ustez horrelakorik ezin da gertatu, estatusik ez dugulako: artistak ez du izan industria bat, sektore mugatu bat bihur litekeen egitura bateko partaide izatearen kontzientzia. Horrenbestez, egitura komertzialean txertatzean, nagusitu ziren interesak artistek oro har –interes indibidual hutsaz harago– izan zitzaizketenen oso bestelakoak dira.

**Poldi Langer:**

Superespezializatua den eta diruaren botereak egituratua dagoen gizarte honetan, ideal utopikoak omena galdu du eta artistak praktikoa eta eszeptiko bilakatu gara. Indibidualismo

horren aurrean, artistok batu egin behar gara, gizabanakoa izaki sortzaile eta boterearekiko autonomo gisa garatzeko bidean gure aletxoak jartzeko. Eta artisten elkarrekin oinarritik, sortzaileengandik jaiotako kultur dinamika berrien sorrera bultzatu dezakete.

**Marcelo Expósito:**

Nire iritziz, laurogeiko urteei buruz kritika are erradikalagoa egin behar da. Izan ere, normalizazioa lilura faltsua izatea baino, kontua da artearen alorrean merkatua ez zela inoiz existitu: lan harremanak ez ziren arautu, ondasun zirkulazioaren zerga-kontrolak ez zen egin, merkatua garatze aldera ezarri beharreko baldintzak ez ziren erregulatu... Artisten lan egoera, esaterako, bizirupenekoak izan zen, baldintzak industria aurrekoak ziren kasik, kapitalismo basatienaren isla: somara lan egiten zuten... Bestalde, bitartekaritzaren arloan —kritikatik hasi eta kultur kudeaketara bitarte— betidanik zilegiago jo zen bakoitza bere esparruan profesionala izateko helburua. Ondorioz, baldintza penagarriak ohiko bihurtu dira, hainbestearino ezen oro har eremu horretan esku hartzeari utzi egin baitzaio, eta elkarrekin lanak utzikeria horrekin tupust egingo du, sistema hori sakonean eraldatzeko ahaleginean.

FG: Horrez gain, kontu aski makur bat gertatu zen, nazioarteko jokalekuan aritzeko abagunea izan zutenak ez baitziren hirurogei eta hirurogeita hamarrek urteetan jo eta ke lanean ibilitako artistak, artista gazte bakar batzuk baizik. Izan ere, bide hori egin ahal izateko, artisten produkzioa kontrolpean eduki behar zen, eta horien eskaintza eta eskaria kontrolagarria izan behar zen. Ez ginen egoera horri kritika egiteko gai izan, ez merkatuaren egoerari, Marcelok zioen moduan, ez kultur politikarenari. Eta aurrez urrats hori egin gabe ezinezkoa da estatusa negoziatzea, politikak berraztertzea edota egoera horiek eraldatzeko eragin ahalmena izatea.

ME: Ez da ahaztu behar laurogeiko hamarkadan artisten eta galerien artean indarrean zeuden lan harremanak gerora gizartearen borrokatu diren

kontratazio molde makurrenetan makurrenak baino askoz okerragoak zirela, eta gaur egun ere hala direla. Horrek erakusten du –esku hartzeko gure gaitasun ezaz gain– merkatuan, baina baita artearen arloan ere oro har, ezin dela esku hartu kulturako erakunde publikoetatik soilik, eta ezinbestean engeiatu behar direla, halaber, dinamika sozial eta ekonomiko orokorrak erregulatzen dituzten beste erakunde batzuk.

XE: Artearen eta herritarren artean harreman bat ezartzeko asmoa etengabea izan da zenbait artistaren diskurtsoan. Hori gauzatzeko mekanismoak, eta baita emaitzak ere, askotarikoak izan dira. Gizarte zibila deitutakoaren eginkizuna zokoratuta geratu da, arte garaikidearen egitura mendean hartu duten erakundeen mesedetan. Egitura horiek (museoak, eskolak, zentroak, galeriak...), artea gizartetik urrundu dute? Errealitatetik urrun dagoen gainegitura eratzailerik eta funtzional bat sortu dute, edo, aitzitik, herritarrei kendutako eskubidea haiei itzultzeko mekanismoak bilatzeari ekin behar diogu?

ME: Egokia iruditzen zait museoak, eskolak, zentroak, galeriak eta abar egitura gisa planteatzea, artea izate erakitzaile bat baita, baina tartean bitartekaritza jakin batzuk dituen. Eta bitartekaritza molde horien edukia hertsiki ideologikoa da. Artearen sistemaren bitarteko egiturak aurkeztu ohi dira artista eta haren obra herritarrekin harremanak jartzeko bide natural, objektibo eta garden moduan; horrela, erabat engeinagarria den imaginario bat ezartzen ari dira, artistak sistema horretan esku hartzeko duen premia lausotzen duena.

Engainagarria da, era berean, egoerarekin ados ez dauden bitartekarietatik, inplizituki egitura zurrun horietan ez esku hartzera bultzatzen dituelako. Beraz, auzi politiko batez ari gara, imaginarioaz gain. Nire iritziz, aliantza politiko zehatzak ezarri behar dira alor ezberdinetan lan egiten dugun eta arte produkzioaren eta haren publikoaren

arteko bitartekaritza moduen diseinuan esku hartzeko gogoz gauden pertsonen artean; esan dezadan, bidenabar, publiko hori eraiki egin behar dugula.

BH: Nire ustez arazo larri bat dago arte garaikidean, eta da herritarrek ez dituztela mekanismoak ezagutzen, ez daude trebatuta, ez zaie esplikatzen... Artistaren eta kalearen artean dagoen dibortzio hori, nire iritziz, erabatekoa da. Azken urteotan jauzi bat eman da herri honetan, eta oso zaila da herritarri arte garaikidearen eremu ezberdinetan egiten ari dena azaltzea eta elkarrizketa bat sortzen ahalegintzea. Egiturek urruntasun hori eragiten ote duten... Badirudi ezagutzak dituzten pertsonak falta direla, edo horiek ez daudela toki egokian hedabideetan presentzia handiagoa izango duten diskurtsoak bultzatzeko, gaur egun presentzia hori eskasa eta desegokia baita. Ez dakit hori gertatzen den artistak uste duelako ahalegin hori egitea berari ez dagokiola edo egiturek ahalegina egiten ez dutelako, baina kontua da inork ez diola herritarri azaltzen zer den arte garaikidea deitutako hori.

PL: Botere ekonomikoak manipulatu eta zuzendutako kultura bat dugun honetan, artistok autokritika egin behar dugu. Eroso gaude, jarrera indibidualista bat elikatuz, eta inolako konpromisorik ez dugu hartzen. Hor dago artisten elkartearen eginkizuna: sindikatu hutsak izatera mugatu gabe, gizartearen eta arte munduaren arteko lotura izan behar dute.

FG: Bitartekariak ez dituzte beren funtzioak bete; irakaskuntza sistemak ez du arte garaikidea jorratu; hedabideek oro har ez dute artearen munduarekiko interesik, ezpada enkanteetako prezioen errekorrez edo makroerakusketetara joandako bisitari kopuruez hitz egiteko; arte garaikideko museoak oso berriak dira eta hutsune historiko bat betetzeko eskatzen zaie. Galeriei buruz hitz egin dugu jada. Kritika geratzen zaigu, eta horren inguruan esan daiteke, salbuespen ondradu eta heroiko batzuk salbu,

hondoa jo duela bere erretorikaren uretan. Bestalde, nire ustez artean autonomiaren kontzeptua agortzen ari da. Postautonomiaren aroa hasten ari da: beren lanak gizartean izango duen harreraz arduratzen dira artistak, eta autonomia azken muturreraino eraman izanari buruz nolabaiteko autokritika egiten dute.

XE: Nire iritzi, eragozpen batzuek zerikusia dute arte garaikidearen instituzioa pertsonaia larderiatsu, agintzaile, pertsonalista eta elitistek gobernatua izatearekin; ez da egitura demokratiko bat. Giza harremanak (galeristek edo museoek herritarrekin dituztenak) egitura bertikal eta ajeatu batean oinarriturik daude. Gainera, gure banaketa bideak gizarteratu gabe daude, eta gizabanakoari ez zaio informazioa eskuratzeko modua errazten. Kasta baten moduan jarduten dugu, apaizburuekin, inimizazio bide batekin... Nik erantzukizuna eta autokritika onartzen ditut, ohartzen naiz egitura ez-demokratiko horrek ezin onartzeko harreman hierarkikoak eratu dituela. Arlo horretan, artisten elkarteek funtsezko eginkizuna bete beharko lukete egintza artistikoari duintasuna emateko joko arau berriak ezartzeko orduan. Argi dago gure jardunbidea gidatuko duen oinarritzko araudi bat ezarri behar dela, orain dagoena nolabaiteko morrontza bat baita.

ME: Baina artistek egitura horietan esku hartzeari uko egiteko joera ere gairitu behar da. Kontzientzia akuilatzeako dinamika bat garatu behar da, bitartekaritzako arlo horietan kolektiboki eragin ahal izateko. Dagoenetik abiatuta, artearen arloan berariazko eremu alternatibo bat sortu behar da, non harremanak (pertsonek artekoak, elkartrukeak, taldeen artekoak) adostuak izango diren, eztabaidetatik nahiz gatazka eta aurkakotasunetik sortuak. Izan ere, herri honetan gatazkarekiko izua sakon erroterik badago, artearen arloan izu horren neurria narritagarri izateraino heldu da.

XE: Jakina, botereak artearen egitura antolatuko duen eran, egiten duzunarekin tentu handiz ibili beharra daukazu. Horrek artisten energiak zatikatu ditu eta energia sortzaileen eragin eraldatzailea apaldu du.

ME: Nire ustez beste arazo bat da kapital sinbolikoaren metaketarena. Aurreko hamarkadetan sektore batzuek beren kapital sinbolikoa metatu eta mantendu badute ere, artearen sektoreak zeharo galdu du. Geure buruari galdetu behar diogu zergatik galdu duen jardura jakin bat sozialki legitimatzen duen kapital sinboliko hori, eta zer eragin izan duen horrek publiko jakin bat galtzean. Eskatzen dudana ez da tertuliakide izatean datzan legitimazio absurdu hori, baina egia da zinemaren munduko sektore periferikoetan lan egiten dutenak, esaterako, zinemaren erdiguneko sektoreak metatu duen kapital sinbolikoari etekina ateratzen ari direla. Ondorioz, araubide bat dago eta horri esker filmak –artisten erakusketa eta lan askok baino ikusle gutxiago erakartzen dituzten filmak– ekoiztu daitezke, laguntza publikoek eta nolabaiteko normaltasunez. Beraz, kontua ez da ikus-entzule kopuruak eta errentagarritasun ekonomikoa neurtze hutsa, zilegitasun sozialak ere badu zerikusirik.

BH: Haiek leku bat izatea lortu dute, hain zuzen, une jakin batean sektorea beraiek izugarritzko presentzia izateko eran antolatzea lortu dutelako, eta horregatik, dirurik gabe, estreinatu ere egiten ez diren kalitatezko produkzioak egiteko moduan dira. Baina, kontuz, herri honetan dirua erruz sortzen duen industria batez ari gara.

XE: Instituzio horiek askoz gehiago zabaltzen dira eta, beren antolaketa egiturak demokratizatuta, herritarrengandik askoz gertuago egoten jakin dute. Metaforikoki, arte garaikideak, instituzio gisa, oso gutxi du errepublikanotik eta asko monarkikotik. Errepublika oso gutxi, *res publica* edo forora itzuli ez delako. Iruditzen zait gure munduan aristokratiaz asko dagoela, eta demokrazia bat planteatu behar dugula.

EG: Nik zalantzak ditut, herri honetan arte merkatuaren egitura inoiz normalduko ote den. Bestalde, arteak eta haren publikoak bat egiteko bide berriak agertu dira, oraindik hastapenetan badaude ere: Internet, jakina, zenbait telebista... Baina komunikazio eta

informazio sistema berri horiek guztiak ez dira ezer edukirik gabe, eta beraz hor merkatu garrantzitsu bat zabaldu da. Horrek artistaren estatusa aldatuko du, bere lana merkaturatu edo banatzeko modua, eta elkarteek horren inguruan gogoeta egiteko betebeharra dute. Hor berebiziko garrantzia duen auzi bat dago, egile eskubideena hain zuzen. Alde horretatik, etorkizunean arte tradizionalaren merkaturatua baino baldintza hobekia izan genitzake.

ME: Gauza bat argi dago, kontramintzaira bat behar dugu, eta zenbait topiko alboratu. Eztabaida hain orokor honetan iraili beharreko ikuspegi bat da artearen eremu publikoa ez dela existitzen, eta, horren baitan, bitartekariak ez dutela beren eginkizuna betetzen, eta horregatik kultur politikarik ez dagoela, eta abar. Nire ustez artearen eremu publikoa existitzen da, baina haren molde ofizial nagusia ordezkartzakoa eta aristokratikoa da, eta sektore horretan gailen diren botere multzoek beren boterea islatzeko erabiltzen dute, mitologia jakin baten anparoa (artearen autonomia, artista indibidualista, bitartekariak zaindari paternalista gisa...). Uste dut, halaber, bitartekariak bete dutela beren eginkizuna, baina eginkizun oso zehatz bat: herri honetan nagusi den kritikak elite jakin batzuen boterearen ordezkartza mantentzen duen eremu publiko baten mitologia espezifiko hori elikatzen, bermatzen eta errepikatzen du. Eginkizun horren beste alderdi bat da arteari –jardun sozial gisa eta, adiera zabalean, esku-hartze politikorako tresna aktibo gisa ulertzen den heinean– sistematikoki zilegitasuna kentzen dion jardunbide bat garatu izana.

XE: Horri dagokionez, Kataluniako artisten elkartearen esperientzia eredu garria da. Baina fikzioak sortu beharrik ere ez dago; lehendabizi, elkartegintzaren baitan adostasuna lortu behar dugu ideia baten inguruan: elkarteak errotik demokratizatuta, atezuan egongo den foro bat sortu ahal izango dugu. Eta, elkartearen baitako esperientzia demokratiko horiekin batera, espazio berriak sortu behar dira, mintzaira berriak eta baita erakundeak eta kolaborazio pertsonalen kartografia berri bat ere, klase

aristokratikoa egotziz eta molde demokratikoak sustatuz.

FG: Bai, estrategiak edo taktikak planteatzen hasita, gertuen dugun bitartekaria erakunde da; hortik aurrera, gainerakoak dardarka jartzen dira. Eta, hain zuzen, zenbait bitartekari desagertzen dira, eta berriak agertzen. Artistak horri aurrea hartu behar dio; bitartekari horien berri jakin behar da, nor kontrolatzen dituen aztertu... partidari aurreko bitartekariekin baino baldintza egokiagoetan ekiteko.

XE: Zuen ustez artistak artearen egiturak ezarritako ildoen mende jarraitu behar du? Erakundeek ez dute sortzaileekin dituzten harremanen inguruan hausnartu behar eta egintza artistikoaren autonomia sendotuko duten garapen eta elkarrekintza bide berriak zabaldu? Horri dagokionez, artisten elkarteek zeregin nabarmena izan dezakete harreman esparru berri bat osatzeko orduan?

PL: Bitartekariak ari gara, baina nire ustez erakundeek hitz egin behar dugu; gauzak birplanteatu behar dituzte, eta artistei zabaldu kultur programazioen diseinuaren esparrua, kultur politika taxutzeko eta kontrolatzeko orduan artisten elkartei lankidetzak eskainiz.

ME: Niri iruditzen zait krisiak, eraginkortasun ezak, klasismoak eta, oro har, artistak eremu publiko ofizial, ordezkartzakoa eta aristokratiko horretatik baztertzeko dinamikek bi erantzun mota eragin dituztela gure herrian: oraindik ahula den baina sinbolikoki oso garrantzitsua bihurtzen ari den sektore alternatibo baten sorrera, eta erantzun indibidualista.

Sektore alternatiboak, nire irudiko, egoera berri bati aurre egin beharko dio, eremu publiko ofizialaren funtzionamendu molde nagusien aurkako jarrerak eragin duen Estatua/gizarte zibila dikotomiatik abiatuta. Baina egoera berriari dialektika horretatik heltzea engainagarria iruditzen zait, gizarte zibilaren autonomiaren ikuspegi mistifikatu batean oinarrituta Estatuaren egituren aurrean

alteritate erradikal gisa agertzeak elikatu egiten baitu, azken finean, asistentziatzko Estatuaren eraispenak ekarri duen gizarte babesgabetasuna.

Erantzun indibidualistak, denik eta era erradikalenean agertuta ere, artista indibidualistaren imajinarioari loturik jarraitzen duela iruditzen zait, artista autonomo eta babestuaren irudia proiektatzen du, besterik gabe, eta nagusi diren kultur politiken aurrean erantzun boluntarista bat baino ez du eskaintzen.

Bi jarrera horien aurrean, nik planteatuko nuke, baiki, dinamika alternatibo eta demokratiko batzuk sortzea, baina Estatu/gizarte zibila dikotomia murriztailean oinarritu beharko ez litzatekeen jokaleku berri batean. Alegia, identitate kolektibo eta pluralizatu batean oinarritu beharko litzatekeen —eta era berean identitate hori sortu beharko lukeen— artearen eremu publiko alternatibo bat. Amesten dudana *gizarte zibil alternatiboa* ehundura lauso batean hezurmamitu liteke, ideia nagusi honen gerizpean: artista bat ez da berez artista, artistaren identitatea, beste edozein bezala, esparru politiko batean eraikitzen da, eta nire iritziz esparru horrek eremu publiko alternatibo eta errotik demokratikoa izan beharko luke.

XE: Estatu/gizarte zibila dikotomia horren aurrean, oso gustukoa dut erantzukidetzaren ideia, funtsean ideia politikoa dena, herritarrak erabakiak hartzen diren arloan esku hartzeko duen gaitasunari lotua.

BH: Nire planteamendua xumeagoa da: artista batzuk, kolektiboki, beste kolektibo batzuekiko dituzten desfaseei aurre egiten ahalegintzen dira. Baina ez dut sinesten artistak bere burua eratzeko konfrontazio fase batetik igaro behar duen kontu horretan. Artistak, nire ustez kolektibo osoak dituen arazo jakin batzuei kolektiboki erantzuteko beste artista batzuekin batzen denean, aukera ideologiko bat egiten du. Gutxieneko erregulaziorik ere ez dagoenez, sektorea arautzen laguntzeko araudi bat sortzen ahalegindu behar dugu;

horretarako, kolektiboki jokatzeko ikasi behar dugu, eta geure buruari planteatu behar diogu zein den, eredu posible guztietatik, geuretzat nahiko genukeena, artisten kolektiboaren arazo nagusia eztabaidarik eza baita.